

GERRA SOINUAK DONOSTIAN



Map data: ©2021 Google / Badihardugu Euskara Elkarte

- Loiolatik Ondarretara
- Añorgatik Ondarretara

1936ko gerra garaian Donostian izandako gertaera batzuk batu ditugu ibilbide hauetan.

Gerrako soinuak, nolabait.

Hirian izan ziren tiroketa, bonbardaketa, fusilamendu eta kartzelaldiekin lotutako pasadizo batzuk, lekukoek beraiek kontatuta.

Gerrako Ahotsak proiektuan jasotako ahozko testigantzetan oinarritua.

1 FUSILAMENDUEN LEKUKO



Lekukoak: Bereziartua anaiak (Donostia)

Fusilamenduen lekuko izan ziren. Tiro hotsak entzun zituzten, eta ikustera ere joan ziren. Beti jakin izan dute hildakoak non zeuden, baina gorpuak agertu ziren arte ez zuten ezer esan.

2 KANOIKADA BASERRI BARRURA



Lekukoak: Bereziartua anaiak (Donostia)

Beroiz-enea baserrian bizi ziren, Mundaizen (gaur egun Mundaiz ikastetxea dagoen eremua). Gerra hasi zenean, milizianoak zebiltzan baserri inguruan. Bi kanoikada eta 125 bala bota zizkioten etxeari, denak bertan zirela. Anaiaren gelan erori zen kanoikada bat, eta zaurituak izan ziren. Joxe Antonioren ohe gainera ere erori zen bala bat. Arreba zaharrena maindirearekin atera zen, bake eske.

3 MILIZIANOEK HILDAKO GAZTEA



Lekukoa: Benita Gallastegi (Soraluze)

Mirakruz kalean gazte bat hil zuten milizianoek, tiroz. Etxetik atera zuten, pijama dotore batekin, aberatsa izan zitekeen). Hilketaren lekuko izan ziren.

4 MILIZIANOAK URGULEN



Lekukoa: Maritxu Olabiaga (Donostia)

Donostian, Santa Maria elizan sartzen ziren, salbu egoteko. Koltxoiak eraman zituzten kapera batera; jana ere han egiten zuten. Etxeak uzteko esan zieten; militarrek Casinoan zeuden eta besteak gazteluan. Gerrako bi itsasontzi ere ibili ziren, kanoikadak botatzen (hori geroxeago gertatu zen).

5 AQUARIUMEAN LOTAN



Lekukoa: Karmen Iraola (Donostia)

Altxatuak Komandantzia Militarrean zeuden. Handik Gaztelura egiten zuten tiro, eta beraien etxea erdian geratzen zen, kaian bizi baitziren. Horregatik, etxea utzi eta Aquariumera joan behar izan zuten, seguru egoteko.

6 BONBARDAKETAK ZUBIETA KALEAN



Lekukoa: Martina Alava (Donostia)

Londres hotela ospital bihurtuta zegoen eta bonba bat sartu zen barrura. Cervera itsasontziak eta hegazkinek Zubieta kalean egindako zenbait eraso aipatzen ditu.

7 ONDARRETA KO KARTZELAN FUSILATUAK



Lekukoa: Karmele Sistiaga (Donostia)

Kartzela pareko baserrian bizi ziren sistigatarrak. Goizaldean tiroak entzuten zituzten, patioan.

8 ONDARRETA KO KARTZELAN PRESO



Lekukoa: Juanita Getaria (Errenteria)

Bere aita Ondarretako kartzelan egon zen preso. Bisitan joaten ziren eta kartzela nolakoa zen kontatzen du.



testigantzak entzun



1 BONBA ERORI ZEN AÑORGAN

Lekukoa: Ebaristo Aiestaran (Donostia)

Frontoian zeuden ume mordoa, amona Pilarrekin, bonba bat erori zenean. Zuhaitz bat jo zuen.



2 "INFERNUAN" ATXILOTUAK

Lekukoa: Felix Durandegi (Donostia)

"Infernu" deitzen zitzaien tokian, Foru Aldundiaren biltegi bat kartzela bihurtu zuten, gerra garaian. Ondarretan kabitzen ez zirenak eramaten zituzten hara.



3 KANOIKADAK BENTA BERRIN

Lekukoa: Juanita Bidaurre (Donostia)

Benta Berrin, Goiko Unanue baserrian zuloa egin zuen kanoikada batek.



testigantza eta informazio gehiago online mapan



beste interes gune batzuk



IGELDON ERORITAKO KANOIKADAK

Lekukoa: Zelestino Segurola (Donostia)

Igeldon eroritako kanoikadak gogoratzen ditu, Cerverak jaurtitakoak.



BONBA MORLANSEKO TREN-TUNELERA

Lekukoa: Jose Mari Aristi (Donostia)

Gerra hasi zenean, zortzi urte zituen. Acorazado España itsasontziaren bonbak gogoratzen ditu. Morlanseko trenbide tunela hautsi nahi zuten. Iturrian, aska ondoan, zegoen amarekin eta danbatekoarekin lurrera erori zen.



BASERRI ATARIAN HILAK

Lekukoa: Pakita Anabitarte (Donostia)

Gerra garaian bi anaia hil zituzten, baserri atarian meta bat egiten ari zirela (beste iturri batzuen arabera, bakarra hil zen).



FUSILAMENDUAK ULIAN

Lekukoa: Patxi Mugerza (Donostia)

Beldurrez bizi ziren auzoan, besteak beste Uliako fusilamenduen lekuko izan zirelako.

